

# “PRINCIPE DE VIANA”

SUPLEMENTO EN VASCUENCE  
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA



Delegado para el Suplemento  
en euskara  
MARCELINO GARDE

XV<sup>o</sup> gn. urtea  
146<sup>o</sup> gn. zenbakia

Iruña - 1981 - Irail. Urrilla

Franq. conc.  
N.º clas. 34/60

Director de la Institución  
Príncipe de Viana  
FERNANDO REDON HUICI

## ODOLA

«Ez duzu iñor ilko», agindu zigun Jainkoak. Gizoneri agindu zigun. Otsoak otsoari ez omen dio ekiten; beleak belerik ez omen du iltzen. Bai, ordea, gizonak gizona!

Indarrez itxuria izan den gizakumeren odolak, gorritutako lurraren barnetik, karraxiz, oiuka, deadar egiten dio Jainkoari; ala esaten digu Jainkoak berak.

Ori egia ba'da, —eta egia da—, a!, nolako musika garratza entzuten duen Jainkoak, gaur egun, zeru-gaiñetik! Atsedetik artu gabe, sekulan nekatu gabe, gelditzeko asmorik ere gabe, ari bait da gizona gizona iltzen mundu zabalean. Zenbat gizakumek artu ote du eriotza beste gizakumeren eskuetatik, urte baten buruan?

Bizi guztiak berdiñak dira eta berdin balio dute. Ala ere, ildako gizona ezaguna zaigunean, zarrastako aundiagoa ematen digu aren eriotzak. Iru gizon ospetsu izan dira aurten balaz zulatuak: Reagan, Ipar-Amerika'ko Lendakaria, Erroma'ko Aita Santua eta Anuar El Sadat Ejito'koa. Ortantxe, gizon bakoitza jo zuen gaiztakeri orrek.

Zein ote dira eriotza beren onturrerako erabilli nai dutenek? Zeren serbitzura ote dabiltz?

Mundu ontako gauzarik baliotsuena gizakumeren bizia da; eta gizakumeren serbitzura, gizakume biziaren serbitzura egon bear dugu denok.

Bizia, giza-bizia! Ez da munduan ezer, ez politikarik, ez aberririk, ez Jainkorik, gizakumeri bizia gure eskuz kentzera aalmentzen gaituenik.



«Gorriak pasatu nituen Tafalla'n, Agorrilla'ren igande artan». Orrela esaten zigun Nako Azkona adiskideak ikaragarritzko argazki au ematerakoan

## Geiegizko apostua

Ez nolanaiko saria gure gaztediak urte-oro ordaintzen duena, oitura baten omenez: bizia bera baiño ez ttipiago! Oitura batek, naiz oiturarik zarrena eta errikoiena izan, orren saririk balio ote du?

Mintza bitez zezenen adarretan bizia galtzen duten gazte lerdenean gurasoak. Mintza zakizkigu, batez ere, zu, erriko zezenketan mutiko il baten ama. Mintza zaitzete, otoi! Illak ez bait dira mintzatzen...

Entzun ezazue, irakurleok, era miresgarrian adarren puntetatik bizirik atera diren lasterkarien izketa: «Oraingoan, guttitik eskapatu naiz!», «Gorriak ikusi ditut!», «Ez da esateko nik pasa dudana beldurra!»

Begira zazue, bein eta berriz, goiko argazkia; orra or, bizia eta eriotzaren artean, gizakume gazte bat zezenak adarretik, zintzilik eta arrastaka, daramana. Ez da neurritz-gaiñekoa apustu ori?

Aurtengoa, bai, zoritxarreko urtea! Iñoiz baiño geiagoko txarrieriak aditzen ari gera: Tafalla, Murillo el Fruto, Zankotza ta beste lekutako jaietan, garrantzizko zauriak lepoan, izter-txokoan. Eta odola lurrera, zurrustaka... Kargatzulu'ko Figarol auzoan eta Zinttronigo'n, bi erriko seme karriketari ilik gelditu ziren...

Merezi al zuen?

# EUSKAL ERRIKO LEIOA

## MARIANO ANSO NAPARRA, MINISTRO IZANA, IL DA

Laurogei ta bi urtekin, Agorrilla'ren 29'an, il da Biarritz'en Anso Zunzarren Mariano jauna, Naparroa bere sorterrria anitz maite, ta demokrazi ta askatasunaren alde ibilli izan zena.

Errepublikara garaian, Iruña'ko Alkate ta Madril'en Ministro izan zen; orregatik Diputazioak bere samiña agertu du billera batean.

Iruña'ko illerrian lurperatua izan da Irailla'ren 3'an. Illetan, emen azaldu zen Tarradellas jauna, Katalunya'ko Lendakari izandutakoa.

Arbela jaunak, nappar Lege-Biltzarreko Lendakariak, illerrian egin zuen itzalditxoa onela bukatu zuen: «Atsedenean bizi da orain, Gurutzearen babes maitagarripean, Gurutzea bait da pakearen eta askatasunaren ezaugarri bereziena».

## SEI NOBEL SARIDUN KOMUNISTEN AURKA

Rusia'ko Andrei Sajarof Nobel Sari-duna, komunistek erbesteratu ta askatasunik gabe daukatelako, beste sei jakintsu Nobel Saridunek, deadar egiñaz dei-egin dute mundu guziaren aurrean aren alde; arkitzen den egoera estu ta larrian, giza-eskubide guzien aurkako ekintza maltzur bat delako.

Ta Sajarof bezala, zenbat eta zenbat ote daude Rusia'n? Negargarriak benetan, komunisten agindukeripean bizi bearrean arkitzen direnak.

## IMANOL BERRIATUA JERUSALEM'EN IL DA

Bizkaitarra, frantziskotarra ta euskaltzale aundia izan zen Imanol Berriatua. Ta langille porrokatua euskera irakaskuntzako alorrean. Israel'en zegoen, judotarrek hebreoa erakusteko



Imanol Berriatua, frantziskotar frailea, Euskeraren irakasle aundia, orai dela gutti Jerusalem'en bat-batean illa

erabilli dituzten ikasbideak ikasten, eta bat-batean eldu zitzaion eriotza.


Eta Uri Santuan gelditu da, zutik, besoak zabalik, agoan betiko leloa: «Ni naiz, zu...»

Bere ametsa Euskalerrria euskaldunurik ikustea zen; eta ekintza ortan igaro zuen bere bizi guzia. Bere ikasbideen bitartez, zenbat jende euskaldundu ote du?

«Bi gauza aukeratu oi zuen—bi gauza aukeratu naute, nigandik nere burua zertxobait baztertu arte: kristau Siñesmenak eta gure Euskarak»

Momentu ontan, ainbeste ikasleren ezpaiñetan «Gure Aita» bat izanen zaio elantxobetar irakasle apalari sari obereña; baiña ori, bai, euskaraz, jakiña!

## «Gernika» au ote da gure Gernika?



Picasso marrazkilaren «Gernika» madrildarrek bereganatu dute. Geiegi ote litzake euskaldunok biak edukitzea, Picasso'k egindakoa eta norbaitek desegin ziguna...

Gernika entzutean euskaldun guztiok gauza bat bakararra pentsatzen dugu: Gernika'ko Arbola, eta Arbol orrek adierazten diguna: askatasuna; mundu osoko erri guztien askatasuna, Euskalerrria'ren askatasuna.

Baita beste gauza bat ere badakarkigu burura Gernika'ren izenak. Erri maite ura zanpatu eta sutan ezereztu zuen bonbaketa.

Irugarren gauza, zuetako askok ez dute ezagutuko: Picasso izeneko margolari ospetsuak, Gernika'ren omenez egindako pintura. Gernika'ren ondarena aurkeztu (presentatu) nai omen du margo-lan orrek.

Amerike'tan egon da orain arte pintura ori; oraintxe izan da Madrid'era ekarria. Euskalerrria'n asarre gelditu da jendea. Gernika'n, egiazko Gernika'n egon bear omen du Picasso'ren «Gernika»'k. «Demokraziari omen egitea besterik ez litzake izango «Gernika» Gernika'n ipintzea» esan-berri du Garai-koetxa, Eusko Gobernuko Lendakariak. «Gernika», Gernika'ra!» oi dagi egiazko Gernika'n jendeak.

Baiña Picasso'ren kuadro onek, Gernika'rekin eta Gernika'ren kixkaltzearekin zer ikusirik bai al du?, galdetuko dute zuen artean batek baiño geiagok.

Ez dakigu zer erantzun. Nik ere ez bait dut, zure antzera, margo-lan ori ulertzen. Ez diot edertasunik ikusten. Eta badut nik, zuk bezala, ori esateko eskubidea, edertasunaren barrutian edozeinek bait du bere iritzia emateko almena.

Baiña, naiz guk ulertu ez, izugarri lan bikaiña izan bear du kuadro orrek. Ori dio, beintzat, munduan jenderik geienak, eta badute oiek ere ori esateko eskubidea.

«Gernika», Gernika'ra? Gauza bakoitzak bere tokian egon bear ba'du, betor len-bait-len Gernika'ra «Gernika».

## NAPARROA'TIK GIPUZKOA'RAKO AUTOPISTA

Naparroa'ko Autopista luzatzeko erabakia artu du Napar Diputazio Forudunak, aren bigarren zatiari dago-kionez, au da: Irurtzun'dik asi ta Gipuzkoa'ko mugaraño. Uste denez, Lekunberri'tik zear, Andoain'en elkartuko da napar bide berria Kantauri'ko Autopistarekin.

Ez da merke aterako lan ori, aldapa, leize-zulo ta zailtasunak ugari arkituko diralako: 25.000 milloitik gora itzegiten da, baiña langille askok izanen dute lana, eta elkartuagoak izanen dira Naparroa ta Gipuzkoa. Euzkadi'ko Gobernua ta Gipuzkoa'ko ta Naparroa'ko Diputazioak asi dira billera egokiak egiten.

### IRU NAPAR OSPETSU GOI-MAILLAKO BATZAR BATEN MAI-BURUAN

Gasteiz'en Batzar berezi bat izan da gai oni buruz: «Gasteiz Erdi Aroan», edo «Vitoria en la Edad Media», garai artako edesti edo kondaira aztertzeke, 800 urte bete bait dira Gasteiz iria sortu zela. Orregatik, Gasteiz'ko Lege Zaarra aztertzen ibilli dira beste gizon jakintsuen artean: Caro Baroja, Goyo Monreal, Martin Duque, Ferrer eta Garcia Larrageta.

Gauza jakiña da Naparroa'ko VI-gn. Santxo Jakintsuak eman ziola Gasteiz Iri Berriari lenengo Forua, garai artan Araba ta Naparroa elkaturik bait zeuden gure Errege orren menpean.

Asierako billeran, Lakarra Irakasle naparra izan zen izlari; ta, ain xuxen, izlari orren aldamenean, beste bi napar ospetsu arkitzen ziren mai-buruan: Etxenike jauna, ta Goikoetxea'tar Karlos, Euzkadi'ko Gobernuan Ezierako Aolkularia ta Lendakaria direla.

Orra or, ba, nola iru napar batera, mai-buru berean arkitzen ziren Gasteiz'ko billera artan.



Gasteiz'ko Eunurte-Buruko astepenetan iru nafartar berezi, Garaikoetxea, Exenike ta Lakarra, Maiburuan elkaturik

«Laborem exercens» edo «Lan egitea»

## ENTZIKLIKA BERRIA

Zuk, euskaldun kristaua, ongi dakizu Aita Santua zer den, eta gure Aita Santua nor den. Bai al dakizu Entziklika bat zer den?

«Entziklika» itzak «jiraka ibiltzekoa» esan nai du. Beraz, Aita Santuaren Entziklika bat, Aita Santuak «jiraka ibilli dedin», edo «jendearen artean zabaldua izan dedin», Erroma'tik idazten digun eskutitz edo karta bat da.

Latiñez idatziak izaten diralako, latiñezkoa izaten dute entziklikek izena. Azkeneko onek «Laborem Exercens» deritza; euskaraz, «Langintza», «Lan egitea».

Izenak adierazten digunez, gizakumeon lan-egin-bearra du entziklika orrek mami. Ez da gai orri buruz Aita Santuek idazten duten lenengo Entziklika, asko eta ongi itzezin bait zuten lan-egitearen aunditasunaz eta langilleen eskubideetaz XIII. Leon'ek, eta XI. eta XII. Pío biek, eta bereziki XXIII. Jon'ek.

Oraingo ontan, batez ere lan-egillearen pertsona dauka Aita Santuak begien aurrean; eta auxe da, gutxi gora bera, erakutsi nai digunaren muiña: Lan egitean, Jainkoaren agindua betetzen du gizakumeak, eta lanaren bidez munduaren jaun egiten da.

Kristau ba'zera, irakurle, eta kristau ez ba'zera, baita komunista ba'zera ere, anitz atsegin izanen zaizu Entziklika onen irakurtzea: gure Aita Santuak idatzia bait du, eta Karol Wójtyla gizon jakintsua bait da, eta badaki berez esku-adarrak eta izerdia zer diren... Ortaz gero, komunist-erri batean, Poloni'n, ezi ta bizi izan da. Eta orain arte ez bezalako era batean aurkezten bait ditu gauzak.

### URKIOLA'KO AITA SAN ANTONIYO'REN SANTUTEGIAN, SENAR-EMAZTE BIKOTE UGARI

Bizkai'ko Abadiano'n arkitzen da Urkiola'n dagon eliz edo santutegi ospetsua; itsas ertzetik 700 metroko goi mailla batean, ta bertan ezkontza asko antolatzen dira urtean zear.

Egun auetan, Urkiola'ko santutegi artan bildu ta elkartu dira, bertan ezkontutako senar-emazte ugari; bikote aietako asko, orain dela 50 urte ta geiago ezkondu zirenak zeuden tartean. Billera artara joandako guziak, elkarren arteko maitasun-berritza egitera azaldu ziren.

Egun gogoangarri arreri asiera emateko, amabi t'erdietan Meza Santua izan zuten, euskaraz eta erdaraz; ta Meza garaian, Bilbo'ko Uriarte'tar Juan María Gotzai-Laguntzallea mintzatu zan, ta itz auek ere esan zituen: «Arrigarria ta pozgarria dugu benetan, maitasuna baztertuz, ezkontz-austea gora ta bera entzuten ari geran garai berean, eundaka bikote, senar-emazte zoriontsuak elkaturik ikustea, bakoitzak beren maitasun-berritza gaurkoizen».

Ta an elkartutako denen izenean, amaika bikote mintzatu ziren, denen aurrean, beren maitasun-berritza



Urkiola'ko Gurutze Sanduaren oiñetan, zinezko amodioaren itz ugari

ozenki egiñez, adieraziz, betirako, ill arteraño berritzen zutela elkarrenganako maitasuna.

Urkiola'ko santutegi artan, Euskalerrri'ko iru erki edo probintzietako apaiz-mixiolariak arkitzen dira, ara joaten diren guziei, bear bezala erantzuteko.

Meza bukatutakoan, senar-emazte guziak bazkari anaikor batean bildu ziren, ta etxeratu aurretik, euskal-jai batekin amaiera eman zioten.

Jokabide ta eredu ederra, ezkontz-austeko giro txarretan murgildu-ta dabilzen guzientzak.

## ASIS'KO DONE FRANTZISKO'REN VIII-GN. EUN-URTEBURUA

### SANTUA NAPARROA'N IZAN ZELA BAZENEKIEN?

Aurten ospatzen da kristauen artean, batez ere, «frantziskotarren artean, eta obeki esateko, mundu guzian, San Frantzisko'ren VIII'gn. Eun-urteburua.

Asis'koa zen gizon bat Ebanjelio Santuaren konsejuak –bat utzi gabe-gordetzea asmoan artu ta bete zuena. Jarraitu zien Jesus'en aztarna guztiei, eta Aren antz egokia izan zen. Ez da nolanaiko gizona Asis'ko Santua!

Santu maitagarria da ere, bai orixe! Borroka uts besterik ez zen garai artako mundu latz artan, pakearen maitale aundia, baita pakegillea ere agertzen zaigu; eta napar askok ez dakiena: gure artean ere.

Beraz, 1213'gn, urtean jarri zuen oña San Frantzisko'k Naparroa'ko lurtean. Zankotza'tik milla pausora arkitzen da Rokaforte iri ttipia. Eta antxe agertzen zaigu San Frantzisko Asis'tarra bere lagun Kintabal'ko anai Bernardo'rekin. Eta iri zorioneko orretan egin zuten Naparroa'n aurreneko gelditza, Konpostela'rako bidaldian.

Bitartean, Iruña'ko Nabar-erria, San Zernin eta San Nikolas auzoak bata bestearen aurka borroka bizian. Eta orra or San Frantzisko, irunsemeen pakeak egiten. Zerbait erdietsi zuen, ez sekulako pakea; ala ere, zerbait.

San Frantzisko Plazan dagon oroitarrria jarri-arazi zuen Iruña'k. Arrian idatzirik, irakurtzen dugu:

«ZVRE MAITASVNAZ BARKATZEN  
DUTENAK GORA DAITZATELA  
NERE JAVNA»

Gaur ere badugu naiko borroka Euskalerrri ontan. Betor gugana otsoen ezilaria; otsoak baiño basatiagoak izanen ote gera?



Eskerrez, Iruña'k Asis'tar Frantzisko Deunari eskeiñitako oroitarrria, 1927'gn. urtean ereiki zen



## Naparroa'ko Eli- zan Euskara ere ofizialki erabiliko da eliz-semeen onean

Iruña'ko Zirarda Goi-Apezpikuak agindu duenez, Euskara, erdararen mailla berean arkituko da; orrengatik Naparroa'ko eliz-barruti osoan, emendik aurrera, bai agiriak, oarrak, deiak, aginduak eta gañerako gora-bera guziak bi izkuntzetan: euskaraz eta erdaraz, aterako dira.

Gauzak zuzen eramateko, Batzorde berezi bat izendatua izan da, erdaratik euskarara itzulpenak egiteko.

«La Verdad» eliz-barrutiko aldizkarian ere, Ebanjelioa, oarrak, deiak eta idaz-lanak ere, erdaraz eta euskaraz agertuko dira.

Erroma'ko aginduak aintzat artuz, mezetan, elizkizunetan, eta euskararekin zer-ikusia daukaten gora-bera guzietan, Donosti, Bilbo, Gazteiz ta Bayona'ko eliz-agintariekin batera joango gera naparrak ere euskara-gai guzietan.

Euskaldun errietan euskaraz, eta erdal errietan erdaraz egiñen dira elizkizunak; ta bi izkuntzak erabiltzen diren lekuetan, bi izkuntzak erabili bearko dira, neurri baten barruan.

Gaxo-etxeetan ere berdin, euskaldunak beren aitorketak egiteko aukera izan dezaten, apez euskaldunak aukeratu bearko dira; ta joera berdiña izan bear da kristau-ikasbidea erakustean ere. Ta ala moduz, Ikastetxe ta gañerako bazter guzietan.

### SADAT EJITO'KO BURUA BERE GUDAOSTEAREN AURREAN IL DUTE

Anuar El-Sadat, Ejito'ko Lendakaria illa izan da. Tiroz; soldaduen onorezko ibilketa ikusten zegoenean.

Uste gabean ibilketa artan zijoan kamioi bat; Lendakariaren aurrean gelditu zen, eta bertatik soldadu-jantzitako sei gizon jeitxi ziren, bonbapoteaz aurrea, eta tiroka gero.

Sadat'en alboan eraillak izan ziren Koptoen Elizako Gotzai bat, soldaduen Agintari Nagusi bat, eta beste sei gizon, auen artean sei erailleetatik iru.

Zaurituak berrogei izan dira: iru Enbajadore edo atzerriko gobernuen ordezkari, Ministro bat (irlandarra), eta beste atzerritar batzuk ere bai, bertako jendearen artean.

Min eman dio munduari albiste itun orrek. Ez, orrengatik mundu guziari,



Orai dela 5.000 urte, Gizen paregabeko Esfinge ori denak muturik irauten du; berak ote dakien zergatik gizonaren arima idorra ez da sekulan odolez asetzen?

errialde arabetar batzuk poztu egin bait dira Sadat illa izan dela jakitean. Laterri (estadu) komunistek, ez dute, ezer esateko, agorik idiki. Erailketa auen atzean..., ¿nor ote dago?

# Zorigaiztoko oliotaz berriz

MEDIKU ZAARRA

Olio txarra dela-ta, 180 inguruan dira gure artetik beste mundura bialdutakoak; ta aurreko alean esan bezala, gizonen griñatxar edo diru goseagatik datorkigu ainbeste kalte negargarri.

Kolza-landarea, gure aza-landarearekin badu zer ikusia, senide arteko bezala bait da; orrengatik gure azak ere, erdaraz «col» du bere izena; arbiarekin ere badu aidentasuna azarekin bezala.

Europa aldean asko erabiltzen da kolza-landarea, bere frutualeetatik ateratzen bait da zuku ongarri bat, olio berezi bat. Olio ori berez ez da osasunarentzat kaltegarri, ta Europa'ko lurraldeetan ugari erabiltzen dute sukaldeetan janariak maniatzeko, ta iñortxo ere ez da gaxotzen.

Olio berezi ori lantegietan ere asko erabiltzen da, makina edo tresnak legunki lan egin dezaten; ta baita ere, su emanda argia sorarazteko gauza da. Ta, arrigarriena auxe dugu: baita ere gasolinaren ordekoa izango den itxaropena badagoela, ba ortarako egiten ari diren sayoak ala adierazten bait digute. Beraz, kolza-olio ori ongi erabilliz gero, gauza ona dugu.

Orain arte olio berezi ori gutxi erabilli da, bañan emendik aurrera asko zabalduko dela esango nuke; ain xuxen, Nafarroa'ko Diputazioak dauken Nekazari-Saillak ere, kolza azia ereintzeko erabakia artu du, landare orren etorkizunataz jabetzeko.

Emengo olio-zuaitzetan sortzen diren azeitunetatik ateratzen den olio garesti ateratzen da, gizonlangilleen lan-sariek garestitzen dutelako; ta kolzarengandik atera-



Nafarroa'ko Diputazioa'ren Nekazaritza-Saillak saiatzen ari da kolza-landarea

tzen den olioak berriz, esku-lan gutxi duenez gero, ara or, merke-garestitasunean dagoen aldia.

Ta olio orren merketasuna dela-ta, ortxe dago, gaitz guztien sorrera eta iturria: betiko olio ona ba'litz bezala, olio merkea garesti salduz; ara or, gizonen asmakizun kaltegarria.

Ta ortarako, kolza-olioa usaiz eta kolorez aldatu egin bear, gure exeko-andreak, sukaldeko maniaketan antzik edo kezkarik izan ez dezaten; ta ortarako nai ta nai ez, beste gai batzuekin naastu bear, usai-koloreak aldatuz, betiko olioaren antz-antzekoa biur dedin; ta emen dago kalte guzien sustraia: erantsitako gai berezi oiek, zartaietan eta eltzeetan irakiten asi orduko, beste gai berri batean biurtzen di-

rela, irakin aurretik arkitzen ez zen beste gai berri batean; ta gai berri ori dugu osasunarentzat oso kaltegarri dena.

Gai berri ori da giza-soñean muñak eta birikakin batera, gibelak, eta odolak ere erabat ondatzen dituen, osasuna galduaz eriotzera eramaten duena; ta il gabe gelditzen direnak ere, oso lur-jota gelditzen dira, oso auldurik, betirako lanerako gauza ez direla.

Landareak lurpean dauken sustraia, arbiaren antzekoa da ta oso gutxi azten da; landarea bera da asko azten dena, ta bere adarretan sortzen ditu frutu-aleak; ta frutuale oietatik ateratzen dute kolza-olioa.

Gai berezi ta iltzalle ori, orain arte ez da sekulan ezagutu, orain egiten diren naasketak orain arte egin ez direlako. Ta or dabilz gizon jakintsuak alegiñak egin arren, zeatz-zeatz zer den asmatu gabe, zer den jakin eziñik. Ta bitartean, ainbeste ta ainbeste gizakume estu ta larri, etorkizun beltz baten aurrean. Jaungoikoaren izenean: bai al dago ortarako eskubiderik?



Kolza-landarearen pikor oliodunak ikusten ditugu argazkian

## Bizkai'ko Ziza-izti Jardunak

Jai ikusgarri ta jakingarria ospatutzen da urtero, Bizkai'ko erri zabalontan: «Bizkai'ko Ziza-izti Jardunak», (Jornadas Micológicas de Vizcaya). Aurten, Urrilla'ren 12'tik 18'ra izan ziran.

Illaren 12'an, eberdarian, «Ziza-izti Jardunaren ikasle lanak»; eta ondoren, «Ziza Sukaldaritza»: zeñek obeki perretxikoak jateko antolatzea.

Illaren 17'an, arratsaldean, itzaldi ikasgarria emon eban, ziza izti gaietan gorengo idazle dan Lotina Benguria'tar Erroberto'k, «Irudimenezko aparti kulturala» gaitzat ebal. Ez dakiten ondo zer galdu daben itzaldi ortara etorri etzirenak!

Eta 18'an, «Bizkai'ko XV'gn. Ziza-izti Erakusketa-Leiaketa», eta «Bizkai'ko X'gn. Eskolarteko Ziza-izti Lana». Leiaketari asko; perretxiko ugari eta mota askotakoak; ez gitxien Galdakano bertotik, ez orixe! Izan bere, etzan gitxiagorako banatu ziran garaikur eta Bizkai'ko Aurrezki Kutxak emondako txinditzak. Eberdian, Sarien banakuntza: Lenen, «Barrengorri» galdakanotar Bazkuna; urren, barakaldotarrak.

Antolatzailea, orain 15 urtetik asita, Galdakano'ko «Peña Santa Cruz» izan da, Udalaren laguntzaz eta Bizkai'ko Aurrezki Kutxa'ren babespean, ziur dagozalako euzko-jakintzaren onerako dala.

ALTUNA'TAR JOSU

bere-bai ere; dabe-dute; eberdia-eguerdia; eberdaria-eguerdiarte; txinditza-txeke, diruagiri; udal-Ayuntamiento.

# LAN-OPORRAK ARJENTINA'N

(ETXARRI-ARANATZ'EN ITZ EGITEN DEN MODUAN)

Irailla'ren 16'garren egunetik Urrilla'ren 9'garren egunian Arjentina lurraldiyen ibilli nintzen. Ameiru luze orduko bidie egazkiyen. Ori bei dela ibillaldi poliite! Ibiltzeko, ezta ez berebil (kotxe) ta ez tximist-gurdirik egazkiye bezelakoik. Aren ixiltasune, aren leuntasuna... Lasai ibiltzen da egazkiyen.

Amar kilometro t'erdi lur geñeti eta bedratzireun kilometro leisterka.

Madrid'eti atia giñenien egazkiko argiyek itzeli ziñubien ikusteko zein poliite den Madrid gaubez leñotatikikusi-ta. Ori bia ein zubien ee Brasil'go Bahia erria allaatu giñenien. Oso poliite da Bahia re... Goizeko ordubiten allaatu giñen Bahia'ra. Jetsi giñenien, an zoon bertako mutil beltz bat akeita (kafie) berue nai zeneendako eskeintzen. Ta zein goxo sartzen zan kafe goizeko ordubiten...

An ordu bet ioondu giñen. Gio, iru ordu ondorien, Paraguay'ko Asunción irira allaatu giñen. Emen beste iru ordu t'erdi ioondu giñen. Ta goizeko bedrati t'erditen atia giñen Arjentina'ko Buenos Aires aldia.

Arjentina'n gee baa. Buenos Aires erkiye España guziye beño aundiyyo da. Buenos Aires iriyek amabi milloi laun, gutxi gora bia, dazka; ta oso zabala da. Etxiek, geyenak, txikiyek die ta zabaltasun aundiye daka. Buenos Aires'en ai giñela, esan noon nere emaztia:

—Ori deñ Buenos Aires. Iya ikusten denen nun akaatzen den... Eta etzan ikusten azkenko punte. Buenos Aires'en (eta Arjentina guziyen), berebillek, bakoitzek nai deen bezela ibiltzen die, ez emen bezela. Aundiyeak, inyer geiyoo dakabienak die nausi. Oiek lerreiñen diñubie bestiek. Ango polizien soñekuek pobriek die, ta jendie iaamaten diñubien autobusek ee zaarrak die.

Arjentina guziyen, goizeko zortziten baru austen debie, bazkaldu amabiten ta afaltu atsaldako zortziten.

Buenos Aires'en lan eñen debienak goizter jeitzen die. Aun batien, goizeko zazpi t'erditaako gelditu nintzen nere gurasoekin been

etxien. Goizeko lauten, karriken aitzen niñuben jendiek izketan ta kotxiak ibiltzen. Esnaatu nintzen, erlejube beiratu neen ta erlejube ordubiten nakan, beñe erlejube geldituta nakan. Lasterka jeiki nintzen, garbiñu ta jantzi nintzen ta atezayaangana jetxi nintzen.

—Ze ordu da? —galdein noon.

—Lauek —iaantzun zuuten.

Beraakin pixkaat izketan ioondu nintzen ta gio kanpua atia nintzen.

Ni Montevideo karrikako 84'garren ostatu batien noon. Oñez, karrrika ortako zortzireun (800) etxiaño fan nintzen; an Córdoba karrike artu neen ta zazpi mille (7000) etxiaño fan nintzen. Karrrika oi utzi ta bestiaat artu neen lengusuben etxiaño. Autza allaatu nintzenien, zazpi t'erdiyek zien.

Au esaten duuzubiet ikusteko zeñen luziek dien Buenos Aires'ko karrikek. Ba die amalau kilometro troko karrikek.

Arjentina geyena mei bet bezin leune da. Orregatik ango berebillek (kotxiak) ba dazkabie eskuzko frenue, beñe ez debie ezertaako bier. Ori bee re kotxie ezta muitzen.

Bide berriyek luziek, leunek eta xuxenak die. Ibeiyek ee oso aundiye die. Emengo ibei aundiyeak anguen onduen errekek die. Arjentina'ko lper aldien (Corrientes erkiyen) ioondu nintzen egunik geyenak. Paraguay ta Brasil onduen doo Paso de los Libres. Emendi Brasil'go Uruguay'ana erria askotan fan giñen, batzutan gauzek iostia, launekin afaltzia ta tenis'en jokatzia. Ta erri ontan uste ez neena afaldu neen meiku baten exien: babarrun gorriyek; eta oso ongi egiñek geñiaa.

Beste aldi batien fan giñen Iguasu'ko Kataratas (ibei saltuek) ikustia. Zazpireun kilometro die nengon lekutik Iguasu'a. Lau egun ein genituben berebillen autza fateko. Oso ikusgarriyek die Iguasu'ko Kataratak. Ikusten deneendako ez da neikue esaten doobiena. Ikusi ein bia jakiteko zeñen poliitek dien.



Arjentina'ko Iguazu Kataratak edo ibai saltuak

Onuzkuen, bide berri bazterrien, indio batzuk ee ikusi genituben biak eskuz eindako saski betzuk saltzen.

An dena erdias itz eñen debie, beño ango izkera emengue beño goxuo da, ta emen itz eñen dien itz asko an eztie esaten, ta gauz askoi ez doobie emen bezela otseiñen. Ango bazkaayek ee eztie emenguek bezelakuek. Ango zeleyetan bei ta txekor asko azitzen da. Orriatik aragi asko jaten da iketz erre geñetan erre-ta. Soruek oso zabalak eta aundiye die. Oitako soruatien iondu nintzen; zazpi mille ektariekue zen ta bost mille buru zazkan. Beye bei ta txekorak oso merke dee. Oaiñ paatzen debien bezela, aziendadunek galdu eiten debie. Ango dirubek oso gutxi baliyo au. Beira zazubie: emen, lpar-Amerikako dolar batek laurogei ta amasei (96) pezta baliyo au, gutxi gora bia. Ta an, dolarrak zazpi mille t'erdi (7.500) peso baliyo au. Bazkaaye eñeko gauze batzuk ioostia fan nintzen ta mille peso (ango dirube) itzuli biar zizki-bieten. Ta baakizubie zer eman zuubieten? Aurraandako karameluek.

San Martin jeyo zan etxien ee iondu nintzen ikusten. Etxe txiki ta zarra da. Esan zuubieten libuu batien nee izena jarri nai neen, ta jarri neen: **Santiago Ezkerra Beltza, de Etxarri Aranaz, Navarra (España)**

Au da, itz gutxitan esanda, nee lan-oporrak Arjentina'n.

**LIZARRUSTI**

# BERTS LARIA

## IPARRAGIRRE,

abots gabeko erri baten abotsa

Urte ontan, 1981 urte ontan, bete dira eun urte Iparragirre il zala; denok dakigu ain aipatu dan gizon au nor zan; baña, «zer» izan zan, esan nai nuke.

Urretxu'n daukagu aren arrizko irudi bikain bat; goizero, nere leytotik esaten diot: —«Egun on, Joxe Mari!» Eta, bereala: —«Gaurko norbaiti eman nai izan dezaiola Jainkoak zuri eman zizun grazia».

Euskalerrri'ko egoera larri zegoan, Fuero edo Lege-Zarrak gal-zorian arkitzen bait ziran garai artan. Oraindik oso gazte zalarik, lenengo aldiz Karlisten gudan azaldu zan Iparragirre, errimaitasunak bultzata.

Bergara'ko besarkada maltzurra gertatu zan. Ta, aurrez uste zan bezela, Madril'go agintariiek billaukeri maltzur bat egin zuten Euskalerrri osoari, lau probintziei, Lege Zarrak, betiko auen eskubideak kenduz.

Egundaiñoko zuzengabekeri orren aurrean, muturik gel-ditu zan gure erria, armarik gabe ta zorigaiztoko gerratik atera-berria.

Orain berriz agertzen zaigu Iparragirre, gure erriko semea, bere erri mutuari faltatzen zitzaiona ematen, gitarra zar bat eskuetan artu-ta, bere abots bikaiñaz, Fueroak kentzearekin Euskalerrria'ri zetorzkion kalteak adieraziz: ortarako bere «Gernika'ko Arbola».


Naiz ta Iparragirre eskoladun gizona izan ez, egiarekin batera erria esna-arazten zebillan; ta orduan, gaur bezela, egia ez zan esatekorik. Madril'en bai, eta urbillagoan ere...

—Joxe Mari, nere auzoko urretxuarra, zure eun-urteburuko goiz ontan, goizero bezela zuri «egun on!» esaterakoan, nere leytotik argi argi ikusi dut zer zaitugun: abots gabeko erri baten abots bildurrik gabekoa.

DUNIXI



Tregoarri baten sandutegian datza, Urretxu'n, bertan jaio zen «euskaldunen azken koblakaria»



## GERNIKA'KO ARBOLA

Gernika'ko Arbola da bedeinkatua, Euskaldunen artean guztiz maitatua. Eman da zabal zazu munduan frutua; adoratzen zaitugu, Arbola santua.

Milla urte inguru da esaten dutela Jainkoak jarri zuela Gernika'ko Arbola. Zaude, bada, zutikan orain da denbora, eroritzen ba'zera arras galdu gera.

Ez zera eroriko, Arbola maitea, baldin portatzen ba'da Bizkai'ko Juntea. Laurok artuko degu zurekin partea pakean bizi dedin Euskaldun jendea.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko, jarri gaitezen danok laster belauniko. Eta biotzetikan eskatu ezker, Arbola biziko da orain eta gero.

Arbola botatzea dutela pentsatu, Euskalerrri guzian denok badakigu. Ea, bada, jendea, denbora orain degu: erori gabetanik iruki biagu.

Beti egongo zera udaberrikoa, lore aintziñetako, mantxa gabekoa. Erruki zaitetz, bada, biotz gurekoa, denbora galdu gabe emanik frutua.

Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko, eta biotzetikan Jaunari eskatzeko. Gerrarik nai ez degu, pakea betiko, gure Lege zuzenak emen maitatzeko.

Erregutu deiogun Jaungoiko Jaunari pakea emateko orain eta beti; bai eta indarra ere zedorren lurrari, eta bendizioa Euskal-Erria'ri.

IPARRAGIRRE

# IPARRAGIRRE

## Iparragirre'ren grazia..., nondik datorkio?

Iparragirre izugarri maite izan du Euskalerrria'k. Beste edozein bertsolari maiteago. Ori, ukatzerik ez dago.

Ala ere, izan dira gure errian, Euskalerrria'n, Iparragirre baiño bertsolari bikaiñagoak. Ta ori euskaldunek badakitē. Ala ta guztiz, beste bikaiñago oiek danak baiño maiteago izan dute euskaldunek Iparragirre.

Nondik datorkio Urretxu'ko seme alproja oni orren maitatua izateko grazia?

Ez, noski, bere bizieraren aldetik. Pertsona bezela alproja xamarra izan zan Iparragirre, txikitandik asi-ta.

Mutiko zala gerrara joan zan karlistekin. «Ama, eskolara noa», esan zion amari etxetik ateratzekoan. Guda amaituta, etxera itzuli bearrean, Amerike'taruntz jo zuan. Ez beste euskaldun askok bezela, an lan egiteko asmoarekin, Iparragirre'k ez bait zuan bere bizitza guztian kixazko lanik egin.

An, komediante izateko gogoia sortu zitzaion. Gizakume atsegiña zan. Laguntzalle asko izan zituan, eta auen artean bat Mademoiselle Duprez, abeslari ospetsua. Badu Iparragirre'k bertso bat, oso ezaguna, «Kantari euskalduna» edo «Gitarra zartxo bat» esaten zaiona. Bertso ori abestuz irabazi zuan abeslari frantziar polit aren biotza; laister piztu zan maitasuna bien artean:

**Emen badet frantzes...**

Neskatiñ fiña eta ikasia bait zan Caroline Duprez, sentiarazi zion Iparragirre arloteari jakintzarako gogoia. Orduan Frantzi'n modan zeuden iru idazleen liburuak irakurri zituan mutillak: Lamartine, Chateaubriand, Lamennais.

Amerike'tatik onutzkoan, bere etxera joan bearrean, Suiza, Itali eta Alemani zear ibilli zan kitarra eskuan zuala. Alprojak izan oi duten «zerbait ori» bazizun Iparragirre'k, eta «zerbait ori» zala medio, Amerike'tan bezela adiskide asko egin zituan Europa'n.

Paris'en bertan zan Iparragirre 1848'ko iraultzakoan. Eta iñon geldik egoteko mutikoa ez zalako, Frantzi'ko Gobernuak erbestera bota zuan. Ingalterra'ra abiatu zan, eta an ere, bazter guzietan bezela, adiskide ugari irabazi zuan.

Londres'en zitzaion, ain aipatua izan dan eginkizun ura. Lau txanpon ezin bildurik, agure zar txiro bat ari omen zan kafetegi bazterrean bioliña jo ta jo. Errukitzen da Iparragirre. Artzen du kitarra, eta ekiten dio kantari. Bereala betebete egin omen zitzaion zillarrezko diruz bere txapel gorri aundia. Ta diru aiek danak agurearen kapelara irauli omen zituan. Negarrez agurea, esker-onez; pozik bertsolaria. Lasai lo egin zuan gau artan agureak; bertsolariak, berriz, ostatua ordaintzeko dirurik ez zualako, Londres'ko kale bateko aulkian egin omen zuan lo.


Ingalterra'tik etorri zan etxera, ia mexerin bizi zan amarengana. «Au al da, Joxemari, eskolatik etortzeko ordua?» esan omen zion amak. Bertsolaria zan semea, baiña ez zan motelagoa ama!

Etorri zan Euskalerrri'ra; guardia-zibillak espetxean sartu zuten...

**Giltzapean sartu naute poliki, poliki...**

Ibilli zan kantari Asturias, Galizi eta Portugal barrena; ta atzera, Amerike'tara joan zan...

**Baña biotzak dio:  
-Zoaz Euskalerrri'ra!**



Iparragirre azkeneko urtetan

Zaartua eta pipiak joa iltzera itzuli zan bere Euskalerrri ontara, Iparragirre'ren betiko ametsa:

**Gero ezurrak utzi nere lur maitean.**

Ori izan zenduan Iparragirre: iñon ezin egon umea, arlote utsa, lanaren adiskide koxkorra, lagunartearako txit gizon atsegiña, biotz onekoa etxekoekin ez ba'da; orrela gertatzen oi da: «Kanpoan eguzki, etxean ezer gutxi». Eta Iparragirre'k bere amarengatik, eta bere emazte, seme-alabengatik, axola gutxi izan zuan.

Bertsolari al zan Iparragirre? Bai eta ez. Bat-baterako bertsoetarako ez zuan balio. Bazekian ori berak ere. Orrengatik ez zuan Xenpelar'en desapiorik jaso nai izan:

**Errenderia'n bizi naiz-eta, egin zaidazu bixita...**

Orrela eskatu zion Xenpelar'ek; baiñan ez zuan Iparragirre'ren bixitarik izan.

Bertsoen itxuran, adibidez, punttuen egokitasunean, aski baldarra agertzen zaigu maiz Iparragirre. Xenpelar edo Bilintx askozaz baldarragoa, beintzat. Bi auek aipatzen ditut bere denborakoak bait ziran.

Izkera ere, aski baldarra da Iparragirre'ren izkera, batzuetan. Baldartasun orrek, ordea, adierazi nai digu zerbait. Iparragirre'k euskeraz ondo zekien. Ez zuan sekulan orren era baldarrean itzegingo berak. Izkera ori ez da seguruaski Iparragirre'rena. Norena den? Bere adiskide donostiarrena. Iparragirre'k ez zuan ezer idatzi eta argi-

### NERE ETORRERA

A-ra nun di-ran mendi maite-ak; a-ra nun di-ran zelaiak;  
ba-se-rrri e-der zu-ri, zu-ri-ak, i-turri e-ta i-bai-ak.  
Hendai-an na-go zo-ra-tu-ri-kan zabal-za ba-lik be-gi-  
ak AraEuskal-erri. lur o-be-ri-kan ez du Eu-ro-pa guzi-ak.

taratu. Donostia'ko adiskideek jaso zizkioten eta gero argitaratu bertsoak. Baldarkeri oiek, beraz, Donostia'ko adiskideenak dira. Aienak ote dira punttu trakets aiek ere?

Nere ustez, Iparragirre'k izan zuan doirik ederrena, bere irudimen bizkorra da; bizkorra eta yoria, oparoa. Iparragirre'ren esakizun eta irudi asko ta asko, pozik artuko lituzke beretzat edozein olerkari bikaiñak.

Ederra benetan bere egoera eta Jesus'en egoera bi bertso dotoretan kidatzen dituan irudi-joku ura. Aurreneko bertsoan, zibillek Tolosa'ko espetxera nola bota duten kontatzen du bertsolariak. Bigarrenean, Jesus'en espetxe-zokora egiten du jauzi:

Jesus tribunalean zutenean sartu ez zion Pilatos'ek kulparik billatu;  
Neri ere ez arkitu, ez didate barkatu;  
zergatik ez dituzte eskuak garbitu?

Emen bai; dotorek dira punttuak ere emen: sartu, billatu, barkatu, garbitu.

Batez ere, neska politak abestekoan da yoria gure bertsolari onen irudimena; irakur ezazu «Ume eder bat» asten dana. Badira beste batzuk ere: «Nere izarra», «Zugana, Manuela», «Ai, nere zoragarria», etab.

Sentimena ere aberatsa izan zuan Iparragirre'k. Argi ikusi deza kezku biotz-ukitu ori emen argitaratzen dizkizigun bi bertso-lanetan: «Agur, Euskalerrria!» eta «Nere etorrera».

Oar bat bi bertso-lan auen itxurari buruz.

«Agur, Euskalerrria!» izenekoak iru bertso ditu, punttuz ondo moldatuak bigarrena: negargarria, erria, betea. Ez, ordea, lenengoa: kanpora, denbora, dira, Euskalerrri'ra.

Iparragirre bertsolari onegia zan orrelako pottorik egiteko. Berak ez zuan bertso ori orrela kantatu. Bertso ori, zalantzarik gabe, Iparragirre'ren bi bertso-zatirekin osoatua dago: bertso baten aurre-

neko erdiarekin, eta beste bertso baten azken-erdiarekin; galdu egin zaizkigu beste bi erdiak.

«Nere etorrera» izenekoan, berriez, aurreneko eta irugarren bertsoak, bai gaez, bai izkeraz, bai punttuen egokitasunaz, bigarrena eta laugarrena baiño askoz obeak dira; oso onak. Beste bi oiek, aski txarrak, Iparragirre'k kantatu zituan bezela iritxi ote zaizkigu?

Errikoitasuna –barka zaidazue itz baldartxe au– izan zan Iparragirre'ren irugarren doaia: Erriaren-ganako, Euskararenganako, Legezarrarenganako maitasuna.

Eta Euskalerrria miñetan zegoen garai artan, errikoitasun ori izan zan, Euskalerrri guzia zutik ipiñi zuana, eta euskaldun biotzak Iparragirre'runtz irauli zituana.

EGI'TAR BI


## Agur, Euskal- Erria!

IPARRAGIRRE

Gazte-gaztetandikan,  
erritik kanpora;  
estranjeri aldean  
pasa det denbora.  
Errialde guzietan  
toki onak badira,  
bañan biotzak dio:  
–Zoak Euskalerrri'ra!

Agur, nere biotzeko  
amatxo maitea;  
laister etorriko naiz,  
kotsola zaitea.  
Jaungoikoak nai ba'du  
ni urez joatea,  
ama, zertarako da  
negar egitea?

Lur maite au uztea  
da negargarria:  
emen gelditzen dira  
ama eta Erria.  
Urez noa ikustera,  
bai, mundu berria.  
Oraintxe, bai, naizela  
errukigarria...



## Gitarra zartxo bat

IPARRAGIRRE

Gitarra zartxo bat det  
neretzat laguna;  
onela ibiltzen da  
artista euskalduna.  
Egun batean pobre,  
beste batez jauna;  
kantari pasatzen det  
nik beti eguna.

Naiz dala Italia,  
orobat Frantzia,  
bietan billatu det  
anitz malizia.  
Ikusten ba'det ere  
nik mundu guztia,  
beti maitatuko det  
nik Euskalerrria.

Jaunak ematen ba'dit  
nere osasuna,  
izango det oraindik  
andregai bat ona.  
Emen badet frantzes  
interesaduna,  
bañan nik naiago det  
utsik euskalduna.

Agur, Euskalerrria,  
bañan ez betiko:  
bost edo sei urtetan  
ez det ikusiko.  
Jaunari eskatzen diot  
grazia emateko  
nere lur maite ontan  
ezurrak uzteko.

## Ez degu nai gerrarik

Zoaz, Don Karlos Zazpigarrena,  
urrun, bai, gure lurretik.

Ez dezu utzi guretzat pena  
eta tristura besterik.

Lutoz, negarrez, ama gaxoak;  
ai!, ezin kontsolaturik...

Ez degu nai, ez, geiago ikusi  
zori gaitzoko gerrarik

IPARRAGIRRE

## Ara nun diran...

IPARRAGIRRE

Ara nun diran mendi maiteak;  
ara nun diran zelaia,  
baserri eder zuri-zuriak,  
iturri eta ibaiak.

Endaia'n nago txoraturikan,  
zabal-zabalik begiak...

Ara Euskalerra, lur oberikan  
ez da Europa guztian!

Gero pozik, bai, Donostia'ra,  
Okendo aren lurrera;

zeru polit au utzi bearra,  
nere anaiak, au pena!

Iruzuleta maitagarria,  
bere tokia zu zera;

Benezia'ren grazi guztiak  
gaur Donostia'n badira.

Oi!, Euskalerra eder, maitea,  
ona emen zure semea;  
bere lurrari muñ ematera,  
beste gabe, etorria.


Zuregaitan emango nuke  
pozik, bai, nere bizia;  
beti zuretzat, il arteraño,  
gorputz ta anima guztia.

Agur, bai, agur, Donostia'ko  
nere anaia maiteak;

Bilbao'tikan izango dira  
lagun zar onen berriak;  
eta gaiñera, itz neurtuetan,  
garbi esanaz, egiak...

Sud-Amerika'n zer pasatzen dan  
jakin dezaten guztiak.

## Nere amak ba'leki



Zibillak esan dute,  
bizi egoki,  
Tolosa'n bear dala  
gauza erakabi.  
Giltzapean sartu naute  
poliki, poliki;  
negar egingo luke  
nere amak ba'leki.

Jesus tribunalean  
zutenean sartu,  
ez zion Pilatos'ek  
kulparik billatu.  
Neri ere ez arkitu,  
ez didate barkatu...  
Zergatik ez dituzte  
eskuak garbitu?

Kartzelatik atera,  
Fiskalen etxera  
abisatu zidaten  
joateko beriala:  
—Ez etorzeko geiago  
Probintzi onetara...  
Orduan artu nuen  
Santander aldera.

IPARRAGIRRE

## Foru-zaleak

Foru-zaleak gera ta izango,  
mundua mundu dan artean.  
Sentimentu au bizirik dago  
betiko Euskalerra'n,  
naiz ta elizan gure animak  
daude soseguz pakean.  
Ikusiko da gure Arbola  
zutik egunen batean.

IPARRAGIRRE

## Euskeraz egin bear da

Pakean bizitzeko  
gure mendietan,  
euskeraz egin bear da  
batzarre danetan.

Ta Euskaldunen izena,  
geroko eunkietan,  
famatua izango da  
alde guztietan.

IPARRAGIRRE

## NAFARREN BIDE ONA



Elizondo'n,  
1878'ko Euskal Jaietan

Elizondo'ko erri  
eder politean,  
Euskalduna ugari  
bildu da pakean.  
Esanez: —«Batu gera,  
bai, zori onean;  
gorrotorik gaur ezta  
gure batzarrean».

Nafarren bide ona  
«Laurak Bat»'ean da;  
gaur artu bear dana,  
Errien onean.  
Euskaldun on guztiak  
betiko pakean;  
ez degu nai gudarik  
anaien artean.

IPARRAGIRRE

## Ume eder bat

IPARRAGIRRE

Ume eder bat ikusi nuen  
Donostia'ko kalean.  
Itz erditxo bat ari esan gabe,  
nola pasatu parean?  
Gorputza zuen liraña eta  
oñak zebiltzan aidean.  
Politagorik ez det ikusi  
nere begien aurrean.

Aingeru zuri, pare gabea,  
Euskalerra'ko alaba,  
usterik gabe, zugana beti  
nere biotzak narama.  
Ikusi naian beti or nabil,  
nere maitea; au lana!  
Zoraturikan emen naukazu,  
beti pentsatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute:  
—Aingeru ori nun dago?  
Nere maitea nola deitzen dan  
ez du iñortxok jakingo;  
ez berak ere, ez luke naiko,  
konfiantza orretan nago...  
Amodiodun biotz oberik  
Euskalerra'n ez dago.

# EUSKAL BARATZA

## Idatzi eta mintzatu

ANTONIO M.<sup>a</sup> LABAYEN


Guztiok dakigu euskaldunok, betidanik, euskeraz idazteko nagi izan gerana. Urtetan eta urtetan, antziña-antziñatik, euskera mintzatua izan da orain baiño toki geiagotan; damurik, ez ordea eskribuz tinkatua. Orregatik toki askotan, anitz lekutan galdua da, bertan ez utzirik euskerazko toki izenak besterik.

Orri eskerrak agertzen zaigu, gaur erdaldundurik dauden leku askotan, lenago euskaldunak bizi ta, euskeraz mintzatuz, izena eman ziotela. Gizaldiz-gizaldi erri xeak mintzabide bakartzat euskera erabili zuala. Euskeraz mintza ta itzegiñez beste edozein izkuntzaren aurretik. Gerora, naiz zenbait erdera ikasten joanez, euskeraz mintzaten jarraitu zuten, jende arruntak beinik-bein... Jauntxo ta agintari nagusiek egindako utsegiterik nabarmenena, euskeraz ez idaztea izan zan. Orduko giroak, nunbait, ez zuan aintzat artzen, gure izkuntza, ezeraza, txiki ta arlorea zalakoan. Uste ortan, agiri, iskribu ta liburu guztiek erderaz idatzi zituzten. Euskerazko itz banakaren batzu arkitzeko kartulario ta elizpaper zaarretara jo bear da. Erritar xumeak bakarrik umezurtz geldituz euskeraz mintzaten. Gero ta gutxiago, noski. Orregatik galdu ta igesi egin zuan toki askotatik. Eta onela, doi-doi iraun du orain arte gaurko Euzkadi deritzaien toki batzuetan. ¿Merezi al dute Euskalerrria izena ematerik?

Itzeko zorian geundelarik aize bolada berri batek astindu gaitu. Burruka eta ekaitz artean aldaketa gaitzak gertatu dira. **¡Idazten asi gera!** ¿Gaizki ala ondo? Ez nuke esango. Ugari bai ordea. Baiñan, alderantzian, euskeraz gutxiegi mintzaten dugula ezin uka. Askozaz geiago itzezin bear dugula esan bearra dago.

Ez bakarrik ikastoletan, baiñan nun nai gure artean etxean eta kalean eguneroko jardunetan. Izkuntza, gure euskera, alegia, itzegiñez bakarrik indartuko da. Liburuetan soillik dagoala il daiteke. Aintziñan euskeraz idazteko nagi izan ba'giñan, ez gaitezen orain, nagi ta alper izan itzein eta mintzaten. Bi gaitzok eraman bait lezakete eriotzara...

Au irakurri ondoren, ¿zenbatak emanen diote erantzun ona? Beldur naiz; Jainkoa'k nai beza oituraz aldatzea! **AGIAN BAI!**



## AURTXOEN TXOKOA

«AMAYA» edo «Euskaldunak VIII'gn. mendean», orain 100 urte direlarik egindako liburua. Garrantziko liburua, denez nafar-tarra: gaia, «guda godoari»; eta egillea, F. Navarro Villoslada, Biana'ko semea bait zen.

Or, garai artan euskaldunek egin zutena; or, gaur egin bear duguna ere? Ikus ta ikas!



Patxi Zabaleta'k euskeratu du. Iruña'ko Aurrezki Kutxak eragin du laburpen marrazkidun da euskal itzulpen au; bai ta bere bezeroendako banaketa. Esker mille euskerazko bitxi onengatik!

G.M.

### AITONA ETA AMONA POBREA

Behin batean, mendian bizi ziren aitona bat eta amona bat. Oso pobreak ziren. Egun batean joan ziren herri batera lana bilatzera; baina, ez zuten lanik bilatu; eta triste-triste etxera joan ziren aitona amona. Urrengo egunean joan ziren beste herri batera; baina, berriro ere ez zuten lanik, eta etxera joan ziren. Urrengo egunean, pentsatu zuten Tolosa'ra joatea; eta joan ziren Tolosa'ra. Han hasi ziren lana bilatzen. Ez zuten bilatzen, eta azkenengo dendan bilatu zuten lana. Urteak eta urteak egondu ziren lanean, eta aberatsak egin ziren. Baina egun batean lapur bat joan zen aitona eta amonaren etxera, eta ohostu zuen dana; eta aitona eta amona pobreak egin ziren. Berriro ere urteak eta urteak egondu ziren lana egiten, eta aberatsak egin ziren berriro. Eta handik aurrera, inork ez zuen ohostu aitona eta amonaren etxea; eta oso ongi bizi ziren.

IZASKUN MARIÑELARENA  
8 urte.  
ETXARRI'KO IKASTOLA

## OARRA

Euskaldun neska-mutil koxkorrei:

Goizueta, Leitza, Lekumberri ta Irurtzun'go Ikastetxetakoek entzun zuten, elkarturik egin zuten azkeneko eskursioan.

Beste Ikastetxetako euskaldun neska-mutillek ere jakin ezazute:

Naparroa'tik zear egin duzuen eskursioari buruzko idaz-lantxoak, **EUSKERAZ AURKEZTU EDO PRESENTATU DEZAKEZUE.**

Ortan, beintzat, ados izango zerate erdaldunekin. Euskeraz egindako idaz-lan oberenak sarituak izango dira, baita Naparroa'ko egunkarietan agertuko dira ere.

Eta zuen TXOKO ontan jarriko ditugu **EUSKARAZ** zerbait bialduko duzen izenak, Euskal erri guzietan jakin dezaten zuek maite izan eta lantzen duzuela gure izkuntza berezi au.

# SUKALDEKO TXOKOTIK

## Arratsalde on, etxekoandreak!

### FRAXKE

Etxeko lanetan eguna artuxe dut eta ementxe natorkizue gaur goizeko gertakizun batetaz itzegitera.

Beti bezela, gaur goizean ere, gure etxeko bakoitza bere lanera joan denean, patxada osoan enkarguak egitera joan naiz dendara. Eta an Joxepinaxi Loidi neska aurkitu dut. Ni bezela len erritarra zen eta orain Iruñe'n bizi da. Sasi arrosa bezain apaña eta arroa agertu zait Joxepinaxi.

Agurtu ondoren, zerbattetaz itz egin bear eta zera, neguan gaudela eta babarrunak, lentejak eta garbantzuak erostera joana nintzela esan diot. Gañera, bezperatik beratzen jartzea obe izaten dela. Baita ere, gero, eltzea pixkaka-pixkaka astindu egin bear dela, potajea orrela landuz gero, salda loditokoa eta guriña bezelaxe gelditzen dela adierazi diot.

Uste nuen nere esandakoa argi zeudela. Baña Joxepinaxi'ren algarak arrituta utzi nau.

—Por Dios, qué atraso! Eta —«Qué atraso!», berriz esanda ere— feminismoaren denboran, erosketa auek? Gure etxean ez beintzat, neska. No faltaba más! Nik lan oiek ez ditut artzen. Noizean bein, gure Joxakiñ'ek preparatzen zetin, baña nik ez; entre que te engordas ta gañera, goiz guzia sukalde zuloan sartuta egoteko? Ez, neska!

—Eta feminismo ori aurrean jarrita, zer egiten duzu, bada?

Qué barbaridad! Ori atraso bat duen neska. Nik, ori baño gauza garrantzitsuagoak egiten zetiñak. Goizean, nere auzoko emakume elegante batekin, eta Pilixi, Pantxika eta Maritxo'rekin, «footing» egitera joaten naun. Lasterka ibili ondoren, elkarrizketatxo bat egiten dinagu, auzoko gertakizunak aipatzen dizkinagu eta dutxa azkar artzera etxeratzen gaitun.

—Eta gero bazkaria egiten asikozerate... Ez?

—Cállate por Dios! No, chica! Gero, bermut artzera joaten gaitun eta antxe pasatzen dinagu beste ratotxo bat.



—Eta zer bazkaltzen duzue?

—Ez dun ain zalla, neska! Batzutan, entsalada eta aragi errea, edo ta janari gertuak ere erosten dizkinat (platos preparados). Oitu ditun etxean. Gizona mentalizatu diñat, eta ni chistar! Or konpon ez ba'dago konporme! Dibortzioa ere badun orain, neska. Eta nere gizona ere modernizatu diñat, eta dibortziak ere ez zion batere beldurrik ematen.

—Joxepinaxi, esaidazu zer den zuretzat feminismoa, bada.

—Por Dios, neska; non ago? Feminismoa da etxekoandrearen nortasunaz baliatzea, etxea berak

nai bezela eratu eta bere jabetasuna lortzea.

—Baña, orrela? Dibortzioa aurrean jarriz, eta bazkari egiñak erosiz, emakumeak bere nortasuna balioerazi? Joxepinaxi, ez ote zaude uker?

—Begira: gure errietan bai izaten zela geienetan andrea etxeko erregina. Ark ordea, beste filosofi bitxi bat zuen. Sukaldean ordu asko pasatzen zituen eta bai gizona bereganatu ere. Oraindik ere gertatzen da; otordua zerbattengatik exkaxa ba'da, etxekoandrearen kezka entzuten da: «Gizonentzat naikoa al da?» Eta ori, zergatik? Gizona jaun eta jabe delako? Ez, ez; gizona engañatzeko modu bat besterik ez da.

—Nere amona zena (G.B.) matriarkarik iñon izan ba'da, auetako bat zen. Ez nolanaikoa! Urtero-urtero etxera bixitari ospetsu bat etortzen zen. Etxeko guziak, egun artan, atean zain egoten ziren. Eta azkena kanpotarra iritxi ondorean, bere sukaldeko mantal zuri ta guzi... amona ateratzen zen, goiz guzia sukaldeen igaro ondoren azkeneko momentu arte, bere eginkizuna erti-lan bat bezela antolatzen aritu ondoren, erregina ematen zuen. Aren poza! Bai, poza esan dut, besteengatik egindako lanak pozaz arrotasuna ematen ziolako eta etxeko eta kanpokoan aurrean amonaren artea eta amonaren nortasuna agirian gelditzen ziralako. Aren inguruan pozik denak; ari begira denak; bazkaltzeko orduan eta beti.

Feminismoa orduan, beste modu batera artzen zen. Emakume aiek ez zuten maiz pelukeri bearrik edo «footing» egin bearrik, gizona eta etxekoak bereganatzeko. Gizona aal bezain aguro etxera biltzen zen. Non bere emakumearekin bezela? An ez zegoen dibortzioaren bearrik.

«Etxe uts, ger uts», entzun izan dut beti nik. Etxe uts ez da bakarrik dirua falta den etxea, esan nion Joxepinaxi'ri. Emakumeak bere buruari, etxeari eta etxekoei baño begiratzen ba'dio, etxe uts da, erreginarik gabeko jauregia bezela.


—Joxepinaxi, zoaz —nai ba'duzu— «footing» egitera, bermut artzera, eta bazkari egiñak erostera. Bai ta dibortzioa eskatzera ere, iruditzen ba'zaizu. Ni, babarrunak beratzen jartzera noa.

Por Dios! Qué atraso!

### MUS LIMOIDUNA

#### LAU LAGUNENTZAT:

«Ideal» izeneko esne pote bat,  
5 kutzare azukre,  
2 limoiren zukua,  
limoi baten azala papurtua (arrallatua).  
Turmixen nasi (minutu bat aski da), eta  
otzagailuan sartu, (goian ez).  
Bazkari ondoreko goxoa eta erreza duzu.





# • ERRIZ - ERRI •

## Baztan

### ZENBAIT IRUÑE'KO ETA ARABA'KO EUSKALDUNBERRI TALDE, BAZTAN'EN

Joan den udan, Baztan alde huntan izan ditugu Iruñe'ko «P. Axular» eta «J. Amendux» euskaldun berri Taldeak eta Araba'ko bertze Talde bat; guzira, ehun lagun. Ikastaro hauetan ibiliak izan direnak gogor lotu dira euskara lantzen; denbora guzian, elkarrekin beti euskaraz mintzatzen ziren. Guk ere izan ditugu hartu-emanak Talde hoiekin, solasaldiak eginik Baztan'go arazoak erakutsiz.

Euskaldun berri hoiene kemena ta euskal-zaletasuna, aipagarriak dira; nola ikasi duten euskara!

### BESTAK ETA BILTZARRAK

#### ALDERDI EGUNA

Oroitzapen hunkigarria utzi digu Ayegi'n ospatutako Alderdi Eguna. Hainbertze yende mugiarazten duen Alderdiak badauka indarra; hori garbiki agertu zen Irala'ko azken igandean. Han ikusi genituen Euskal Herri guzietatik etorritako yendeak; denak, haurride onak bezala, Nafarroa'ren bihotzean bilduak, Amaren altzoan elkaturik. Han zaharrak, gazteak, haurrak, famili osoak: Herria, hitz batean erranik. Han errespetoa, alaitasuna, elkartasuna; hor agertzen zen euskal yendearen nortasuna.

#### ANIZ'EN

«Aniz: hameka etxe, hameka labe, ta hogeitabe zetabe, bat bertze behartu gabe». Erranairu baztandar hunek ederki adierazten du Aniz'ko herriaren nortasuna, gure eskualdeko herri euskaldunena hain segur.

Bestak, Urri'ko 3'an asi ziren: Meza Nagusia, Euskal Jaialdia, Pelota eskuz, Aizkora eta Bertsolariak. Eta ederki egin zuten gure nafartar bertsolariak: Amorena zugarramurdiarrak, Argiñarena errazkindarrak eta Elizagoyen arraioztarrak. Asteartean, aniztar guziak bildurik, zikiro yatea.

Bestak gan dire, orai usoak Olari'n.

### ELIZONDO'KO FERIAK

Urtero bezala, San Lukas ondoko astearen ostiralean, ospatu dira Urri'ko

Feriak Elizondo'n. Ofizialki iru egun izaten dira; osteguna, ostirala eta larunbata; bainan, ostirala da egunik aundiena. Aurten denborak lagundu gaitu eta yende aunitz bildu da Baztan'go hiri nagusian.

Merkatu zelaian ere hazienda ederra, klasean klasekoak eta prezioak ere arabera hortan. Karriketan eta plazetan zernai gauza salgai, saltzaleak pillaka karriketan ezin kokatuz. Beti bezala, bazen mugimendu eta hemen bildu dira baztandarrekin batean, Bidasotar, Ultzamar, Baxenafatar eta Lapurdi'ko yendeak. Elizondo'ko Feriak euskaldunen biltzarra da, egun hortan euskara nagusi Elizondo'n.

Arratsaldean bi pilota partida. Lenbizikoa: Retegi III-Txoperena 22, Kenedi-Garaita 17. Bigarrena: Bergara II-Maiz 22, Bengoetxea III-Lajos 20. Feriak joan dira eta aurtengoak aspaldi huntan izan diren hoberenak.

### ELIZONDO'KO KORALA LEHEN SARIA EGO-AFRIKA'N

Elizondo'ko Koral'ak aipamen berezia behar luke, berriz ere Ego-Afrika'n erdietsi duen garaipen haundiarengatik.

Urria'ren 16'ean ospatu zen Johannesburg aldean, Roodpoort hirian, Ego-Afrika'ko Sariketa Nagusia, 12 Kantari Taldek parte hartu zutela: lau, Europa aldetik: Gales, Italia, Alemania eta Euskal Herri'ko Elizondo'koa, ta bertze zortzi Koral Ego-Afrika'koak. Merrezimendu guziekin Elizondo'ko Korala, IRABAZTALE Sariketa Nagusi hortan. Hiru egunen buruan, bertze Sariketa Folklore Sallan, Hirugarren Saria bereganatu zuen.

Ez da lehenbiziko aldia dastatu duela garaipenaren loria. Eraso yaunaren gidaripean asi zen gure Korala, 1942'gn. urtean, eta gidari berarekin joan diren 39 urte luzeetan. Gure Koral'aren kantsaioak Euskal-Herria'n, España'n, Frantzia'n, Ingalterra'n, Austria'n, Italia'n, Belgika'n, eta orain Ego-Afrika'n, arrakasta izigarria ukan dute. Baita garaipen ederrak ere:

Gales'ko Langollen'en, 1951'ko Laugarren Saria; 1952'an, ordea, LEHENBIZIKO Saria; eta Langollen'en izanak dira 1952, 1977 eta 1979'gn. urteetan. Erroma'n, 1953'gn. urtean. Eta Tolosa'n ospatzen duten Lehiaketan bi aldiz ari izanak dira eta, bietan, Hirugarren Saria erdietsi. Behin, Frantzia'ko Lille hirian, Bigarren Saria irabazi zuten.

Oraingo garaipenak bozkarioz bete gaitu; gure kantariak Elizondo ta Baztan'go izena gorasko ezarri dute, gure Nafarroa ta Euskal-Herria'ri fama ona mundu guzian ematen.

Urria'ren 21'an etorri ziren kantariak Elizondo'ra. Nolakoa Herriak egin zien arrera! Herriko ta Baztan'go Kontseilukoak; txistulariak; «Kalxka» soñulariak; eta Baztan'go yende guzia bildu ginen Koral'ari merezi zuen Omenaldia eskeintzeko. Egun gogoangarria. Gure zorianik maitekorenak Elizondo'ko Koral'ari, batez ere bere Gidariari; bide hortaz yarraiki! Eta Yaunak, urte aunitzez, zaindu zaitzatela. Berriz ere, zorianak!

MARIANO IZETA

## Larrazkena

*Urria eguraldi onakin, urtean dugun hilabeterik hoberena. «Etxera bil», erraten ohi da, eta ongi ikusten dugu zitu guziak etxeratzen, ugaritasuna bazterretan daukagula, larrazken zorogarri huntan.*

*Baina, Urria'k orotarik baditu: txarrera ematen ba'dio, negu kolore latza hartzen du hilabete ondarrera, Feriak aldera geienetan. Zein labor egiten zaigun urtea osasun ona gurekin dugularik; alderantziz, zein luze eta penagarri osasuna ez delarik!*

*Urtea, gure bizia bezelakoa da; Udaberria, gatzetasunaren adierazgarri; Udara, sasoiko gizadiarena; eta zer erranen dugu Udazkenaz eta Neguaz? Zein laborra den urtea, eta zein laborra gure bizia ere! Ain ederki erraten diguten bertsolariak, Lasarte nafartarrak adibidez:*

*Udazkenean ostroak daude  
igartu eta zaturik;  
nai dun tokira badaramazki  
egoaizeak arturik.  
Gizona ere, lurperatzen da,  
kaja batean sarturik;  
or ezagun da ezer ez dala  
emen betiko sorturik.*

M.I.

# Sakana

## HUARTE-ARAKIL

### ARALAR'ERAKO BIDE-BERRIA

Mikel Aingeruaren eguna zela-ta, bide-berri bat idiki dute ugartearrrek bere Aralar Mendiko egalpetan. Laguntza ederra ekarriko du bide onek oyanetakoa lanetan, arbola moztu ta ateratzekoan.

Orai berrogei ta amar urte asi zirela ugartearrak asmo orrekin; baiña, alde batetik diru falta, beste aldetik bear zituzten laguntzak, gaur egun arte bide-gale ziren.

Zorionez eldu zaie egoera ohea, eta ala bete dute beren amets zaa-rra: San Migel'erako bide-berria.

## ARRUAZU

### VII'GN. EZKILA TXAPELKETA

Antonio Senar, Lizarraga'koak, irabazi zuen aurtengo «Ezkila Jolarien Txapelketa», Irailla'k 20'ean Arbazu'ko ezkil-dorrean izan zena, zortzi jolari zirelarik.

Jende multzoa bildu zen erriko plazan, eta ixilik segitzen zituen jokalarien pauso guztiak; Martin Martirena uiziarrek irugarren lekua bereganatu zuenean, orduan bakarrak asi zen jendea txaloka.

Asieran, Tomas Ganboa, Arbazu'koak, eman zion; joan den urtean, bera gelditu zen garaitzaila, eta azken urteotan, zazpi Txapelketatik lau irabaziak ditu. Epaimaiak orrela erabaki zuen:

- 1.—Antonio Senar
- 2.—Tomas Ganboa
- 3.—Martin Martirena

Geroago, dantzaldi ederra erriko plazan. Zorionak parte artu zutenei Ezkila Jolarien Txapelketan.

ENTZULE

# Altsasu

## URRILA'KO FERIAK

Urrita'ko irugarren igandean, 18'an, bere oiturazko Feriak ospatu zituen Altsasu'ko erriak. Benetan, festa oriek aurreko egunetik asiak ziren. Onela, arratsaldeko 7'etatik goizeko 3'ak alderarte, dantza saioak izan ziren «Foru Enparantzian».

Bederatziak aldera, Altsasu ta bere inguruek dituzten ostatu guztiak betetzen asi ziren ainbeste maikide toki bat billatu nairik. Zer jan? Jakiña! Tradiziozko paterak: Urri-ziza zopa, ointto arrautzopila, txipiroiak, ta —batez ere— usoi!

Afalondoa ezin luzatu. Amar t'erdietan pilota partidu galantak «Burunda Frontoian». Nola utzi? Joan ziren guztiak, amabiak aldera pozik eldu zirela argi ikusten zen. Norbaitek duro mordo bat galdu ba'zuen ere, bere aurpegitan ez agertzen.

PRINCIPE DE VIANA — 14

Igandea izan zen egun aundia; aterturik, gaiñera. Goiz xamarretik asi zen betetzen Feriako kalea. Abereak ugari, batez ere zaldiak. Erriko albitariak esan digunez, trato edo salerosketa asko egin ziren; gaiñera, bistan dago gero ta geiagotzen ari direla Feri auek.

## ABERE SARIKETA

Eguerdian izan zen Abere-Sariketa. Ona emen irabazleen izenak:

### ZALDIAK

Arrama zaldia:

- 1, Felix Imaz, IDIAZABAL
- 2, Eladio Fernandez, ALTSASU

Beorra umearekin:

- 1, Dionisio Oraa, OLAZTI
- 2, Luis Fernandez, ALTSASU

Pottokoa:

- 1, Karlos Mañeru, ETXARRI

### ABELGORRIA

Beia umearekin

- 1, Julio Irigoien, ALTSASU
- 2, Aramendia Anaiak, ALTSASU

Bei bakarra

- 1, Aramendia Anaiak, ALTSASU
- 2, Julio Irigoien, ALTSASU

Zekorra

- 1, Martin Berasategi, ARBIZU
- 2, Juan Mari Nazabal, ETXARRI

### ABELXEE

Arikoa

- 1, Ildefonso Ostiza, URDIAIN
- 2, Manu Fernandez, ALTSASU

Arkume mordo

- 1, Santos Fernandez, ALTSASU
- 2, José Aramendia, ALTSASU

Ardiak

- 1, Manu Fernandez, ALTSASU
- 2, Santos Fernandez, ALTSASU

Ezin dugu idazkitxo au amaitu, ordubatetan Foru Enparantzian izan genuen erri-jaiaz itz egin gabe: Oberena! Ta Altsasu'ko txistulariek, ordu bat pasa, alaitu ziguten biotza euskal soiñuak jozten. Besterik gabe, urren arte.

ZELAI

# Garazi

## ETXEKO BERRI ZONBEIT

Otto Pettan maitia:

*Ni nuxu Gilen, xure iloba, eta Donibane-Garazi'tik igortzen dauzkitxut etxeke berri zonbait. Badakixit biziki urrun joana xirela, bakarrik Amerike'tarat, sosen biltzeko. Egun artio ttipiegi ninuxun letra baten egiteko; bana orai, Garazi'ko ikastolan ibiliz geroz, ixkiatzen dixit eskuaraz, Andereñoari esker.*

*Baxinaki zer Andereño pollita dutan! Gaxuxa dixi izena. Eztia duxu biziki, eta barda amak erten ziaxun ez dutala sekulan samurraz behar. Eta aitatzik aldiz; «Sobera mehe dela gaixo nexkato hori, ezpaita beharba egun guziez asetzen! «Bana nik, hola-hola maite dixit ezin gehio, eta handituko nizalarik harekin gogotik ezkonduko nuxu nahi badu. Bihar, amaren baimenarekin, ekarriko diazkitxut gure etxetik bizpalau xingar zafala, lursagar saltsarekin, gizen dadin nunbait.*

*Zoin untsa mintzatzen den ene Andereñoa! Ez dixi bate Garazi'ko eskuara erabiltzen. Eta aitak erten dixi itsuski: «Zer debu dute orai, liburietako «euskara» bitxi hori?» Bana ni, segur nuxu etxeke eskuara bano hobio dela Andereñoarena, zeren eta «euskara» horrekilan gure herrialde orotan mintzatzen ahal baita gustian nor-nahirekin. Amak ere hola pentsatzen dixi, erranez beztitzeko eta mintzatzeko berdin izan behar dela. Badirela «igandetako gauzak» hirirat joateko, eta «egun guzietakoak» etxeke lanen egiteko. Beraz, ari nuxu etxian amaren eskuara maitiarekin, eta ikastolan Andereñoaren «euskara» pollitarekin.*

*Ikastolan badixit lagun andana bat. Bana, zer izen irringarriak dituzten zonbaitek! Patric, Alain, Cedric, Cristelle, Sylvie, eta hola. Aitatzik erran dixi: «Hauze da astokeria! Zer debu dute Paris'eko izen madarikatu horiekin?» Eta aitak, bere aldetik: «Beharba, burraso batzu ahalge dira nekazari seme edo alaba izaitiaz. Alta, hemen denek badakite araz nuntik ateratzen giren!» Ez dea hala, Otto Pettan? Ene arreba handiak beden, Katixa dixi izena, amatxi xaharra zena bezala. Eta nik, kide hoberena. Larretegi'koa duxu. Etxe hua ikusten ahal xinuke Eihalarre'ko bidetik, xuri xuria Portaleburu'ko gain hortan.*

*Otoi, Otto Pettan, erran behar dataxu nola deitzen duten Amerike'tan haur eskualdun gehienak. Hea ba'direnez, han ere, hemen bezalako Gilen edo Eñaut zonbait. Eta zer ikasten duten hango ikastoletan.*

*Hortan uzten xitut, joan behar baitut aitarekin behien bazkatzerat. Igortzen dauzkitxut ene pott handienak. Izan untsa eta bestalde artio.*

GILEN

ahalge-lotsa; artio-arteraño; barda-atzoko gabean; bizpalau-bi ez ba'da lau; burraso-guraso; dea?-al da?; erten-erraten, esaten; ixkiatu-eskribitu, idatzi; kilan-kin, gaz; sos-txanpoin; untsa-ongi, ondo; xamur-asarre.



# KIROLAK


## MUSI: IKUSI; BAÑA, IKASI?

Paleta ariñez eta pala motzez, bai. Ori ezin diteken ukatu, eta guk ere pozik on-ezagutuko diogu Mexiko'ko pelotari gazte oneri trebetasun ori.

Musi'ren gauzarik arrigarriena bere jokatzeko modua omen da; beti derrebesean jokatzea. Neri, derrebesean jokatu ez baiña, eskubiz pelota jotzean ezkerre eskubira, esku oni laguntzeko, eramanez jokaten duala baitipat, iruditzen zait. Jokaera polita da benetan.

Ori, paletaz eta pala motzez egin ditek gaiza da. Baiña egin al diteke egiazko palarekin, Beitia'k, Utge'k, Goldarazena'k eta Iturri aundiak erabiltzen duten palarekin?

Paleta ariña eta pala motza ordea, egiaz, pelota-joku al dira? Ez dakit, ba, zer erantzun.



**MUSI, Mexiko'tik etòrritako pelotaria, paletaz eta pala motzez ikusgarria**

Gure Euskera bezela, gure pelota joku ez da era batekoa. Futbola, bai; futbola era batekoa da, Gaztelerrí'ko erdera bezala. Pelota, ordea, Euskerraren antzera laukoitza da: lau eratakoa. Danok ezagutzen dituzte pelotaren lau era oiek: Pala, Erremontea, Puntarako Otarra, eta Esku Utsezkoa.

Pala motza sortu berria da. Pelotatik bizi diran pelotariak —profesionalek—, ez dute pala motzez jokaten. Paleta askoz berriagoa da oraindik. Arjentina'n edo alde aietan sortua; emen, oraindik, neskatillen joku dala paleta, esan oi dute mutillek.

Raketa, tenisko raketa, berriagoa da oraindik gure frontoietan. Sarea, ez, len ere jokaten bait zan sarek gure Iparraldean; baiña raketa bai, raketa berria da. Neskak jokaten dute «Madrid» izeneko frontoietan; da, raketaz...

Azkenik sortutako era oiek egiazko pelota diran edo ez, nik ez dizut esango. Eman zazu zuk, zure gustora, zure iritzia. Pelotako Federazioek, onartu dituzte emen paleta eta pala motza; raketarik ez dute oraindik onartu.

Bai; badakit entzun duzula: Mexiko'tik biribiziko pelotari bat etorri zai-gula: Musi. Paletaz eta pala motzez izugarria omen da; ikusgarria. Nik ez dut ikusi, baiña ikusi dutenak zoraturik gelditu dirala dirudi: Musi! Laburdi'ko Biarritz'era etorri da Munduko Txapelketatxo edo «Mundialito» esaten dioten pelotarien billeran pelota jokatzera. An, aurrean jarri zitzaizkion guztiak menderatu zituan errez. Emen ere izan da, Iruña'n eta Naparroa'ko erri batzuetan, bere yayotasunak erakustera iritxia. Bazter guztietan gorazarre aundiak irabazi ditu. Orren aundia ote da bere balioa? Ikusi dezagun.

Musi'k berak saioak egin dituala esan-berri dit Etxebarren'dar Karmelok Donibane Loitzun'en eta Bilbo'n, baiña ez duala mutillak tresna orrekin jokatzeko balio.

Zer egingo deigu, ba? Poza aundia izango zan guretzako norbaitek gure jokuari aize berria txertatu balio, Atano'k III eta Arroyo'k berak txertatu aal izan zioten bezela.

Ikusi bai, ikusi dugu Musi. Ikasi, zoritxarrez, gure palalariak ez dute beragandik deus ikasterik izan.

ERASO

## AIZKOLARI XELEBREAK

### BI «BISKIK» AIZKORA BATEZ ETA LAU ESKUEKIN BATERA

Lizarra'ko aldean bada erri bat: Oteiza. Eta Oteiza'n bada aizkolarien bikote xeibre bat: Urbiola anaiak osatzen duten bikotea. Biskik dira aiok: aizkolariak; baiña ez nolanaikoak. Al-



Oteiza'ko «biskiak», aizkolari trebeak

karrekin eta batera lan egiten dutenak baizik. Ara nola:

Ondoko argazkian ikusi dezakezunez, biak igotzen dira enborraren gainera; biak eltzen diote, bakoitzak bi eskuekin, aizkoraren kiderrari, eta biak batera erabiltzen dute gora eta beera dantzan aizkora.

Jendeari atsegiña izan zitzaion lau besok dantzatzen zuten aizkoraren ibillerari begira egotea. «Orren gauza arrigarririk... Ez genduen sekulan ikusi!», zioten joku-mota auetan asko jakiñak diren tolosar batzuek.

## ERRIARTEKO TXAPELKETA: Larraun-Leitza

Amaitu da Naparroa'n, Euskalerrí'ko beste Lurraldeetan bezala, «Erriarteko Txapelketa» pelotaz jokatu. Larraun atera da garaille! Zorionak, larraundarrak.

Larraundarren etsaiak (etsai adiskide maitaleak eta maitatuak) leitzarrak izan ziren. Norbait irabazi bear eta Larraun'ek irabazi du aurten. Baiña bikaiñak izan dira jokuari Leiza'ko mutillak. Datorren urtean nor izango ote da txapeldun?

Ona emen jokalarien izenak:

Txikienak: **Beloki-Iriarte** (Larraun), 16; **Baleztena-Zestau** (Leitza), 15

Mutikoak: **III Soroa-Argaña** (Larraun), 18; **Aranburu-Arrayago** (Leitza), 6

Gazteak: **III Soroa-Azpiroz** (Larraun), 22; **Aranburu-Urkiola** (Leitza), 21

Nagusiak: **Aldaya-Iparragirre** (Leitza), 22; **Mariñelarena-Elizalde** (Larraun), 20.

Gipuzkoa'n, Azkoiti; Bizkai'n, Ermu; eta Araba'n Amurrio izan dira txapeldunak. Zorionak danei!

Jarrai dezagun euskaldunok, alaiki, adiskidetasunean, anaiarte gozoan denbora paseaz.



Larraun-Leitza partidetakoko pilotariak, lagunak, agintariak, federaziokideak



## SUMARIO

- ODOLA.** Demasiada sangre. Y nada ni nadie facultaba a un hombre para arrebatar la vida de otro hombre.  
**GEIEGIZKO APOSTUA.** Vaquillas, riesgo excesivo; «fiestas» de sangre en Navarra.
- EUSKALERRI'KO LEIOA.** Ventanal de Euskalerría: noticias.  
«**GERNIKA**», **GURE GERNIKA?** El «Gernika» de Picasso salió, claro está de Gernika; pero no lo han vuelto a Gernika.
- AITA SANTUAREN ENZIKLIKA.** El Papa no es un economista. Aspecto humano del trabajo.
- NAPARROA'KO ELIZAN, EUSKARA OFIZIALKI.** Ya era hora; la evangelización en la lengua propia; lejos de criterios cortesanos: «ser la lengua instrumento de Imperio».
- ZORIGAIZTOKO OLIOTAZ.** El malhadado aceite, sus 180 víctimas. Nuestro **MEDIKU ZAARRA** nos descubre los aprovechamientos de la inocente colza, cuyo cultivo se experimenta en Navarra.
- LAN-OPORRAK ARGENTINA'N.** El viaje de **LIZARRUSTI**, en el habla local de **ETXARRI-ARANAZ**: un documento.  
**BIZKAI'KO ZIZA-IZTI JARDUNAK.** Desde Vizcaya, **JOSU ALTUNA**: Jornadas Micológicas.
- BERTSOLARIA.** Centenario de Iparragirre. **DUNIXI** y **EGITAR BI** hablan del hombre y del mito. Y esos versos, inmortales, como el objeto que cantan: amor, belleza, libertad.
- EUSKAL-BARATZA.** **LABAYEN**, un Académico infatigable en el cultivo del euskera, nos da su consejo: Escribir, sí; pero sobre todo, **HABLAR** el EUSKERA.
- ARRATSALDE ON, ETXEKOANDREAK!** Hoy va para mujeres; respetemos a **FRAXKE** que pone a remojo, como sus habituales lentejas, a su paisana **Joxepainaxi**, la estilizada esa de «footing» y chandal.
- ERRIZ-ERRI.** **BAZTAN** ubérrimo en noticias, como el fructual Otoño de **M. IZETA**. Ecos de **ENTZULE** percibidos en **HUARTE**, y **ARRUAZU**. Desde **ALSASUA**, **ZELAI** fresco relevo para el amigo cansado, el querido **P. Yurre**. Una buena firma de **Ultrapuertos, GARAZI**; noticias «de familia», en el euskara afectivo de la Sexta Merindad.
- KIROLAK,** Deportes. **ERASO** recuerda a **Musi**, el ciclón mejicano. La sorpresa de **OTEIZA**: los «mellizos» **Urbiola**, aizkolaris con un hacha a cuatro manos! Campeonato **INTER-PUEBLOS**: **LARRAUN-LEIZA**; victoria de **Larraun**. **Zorionak!**
- LIBURU ZARREN ERAKUSKETA.** Antiguos libros navarros en el marco de un Congreso Internacional. Allí el **GVERO. M. G.**  
**LEITZE'KO «JEIKI» KORALA ITALIA'N.** «**UXOLA**». La Coral de Leiza, con **Pontxito Irurtia**, actuando en Italia: **Laterma** y **Arezzo**. (En Areso. cualquier día).

## Napar liburu zarren erakusketa

**REFRANES Y SENTENCIAS**  
comunes en Bascuence, declaradas en Romance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas. Impreso con licencia en Pamplona por Pedro Porrakis de Amberes, 1596.

Negargarria da 1596'gnean. Iruña'n argitara emana zuten liburuarekin gertatu zena. Goiko argazkian ikusten dugun «Refranes y Sentencias» izeneko liburua, Van Eys euskalzaleak aurkitu zuen Alemania'n. Urrengo 1939-45'ko gerratean, bonbaketa batetan, Darmstadt Erriko Liburutegian kixkaldu zen liburu berexi orren ale bakarra.

Badakit zuek, gure errietako jende leial oiek, iburutarako denbora geiegirik ez duzuela izaten; bear ba'da ez zaizkizue liburuak geiegi inporta. Baiña liburua, lanarekin batera, izan da mundua aurreruntz joateko tresnarik nagusia. Eta ortan gaude.

Urtilla'ren erdiraño zabaldurik izan da Naparroa'ko Erakustoki edo Museoa, eguneko eta antziñako napar liburuak erakusteko asmoaz. «Europa'ko Argitaratzailleen V'gn. Billera», aurten Iruñan izana, izan da garrantzidun Erakusteta onen aitzakia.

Naparroan orain ditugun Argital-etxe ta Erakundeek aurkeztu dituzte beren goi-mailako liburuak.

Ortaz gaiñera, «Príncipe de Viana» Erakundeak, Fernando Redón Jaunaren zuzendaritzapean, antolatu zuen Napar Liburu Zaarren Erakusketa. Baita arrera ona eskeiñi ere Europa'ko Argitaratzaleei, Erakustoki edo Museo'ko Areto Nagusian.

Xabier Zubiaur, «Príncipe de Viana» argitalpenen arduradun dena, mintzatu zen Naparroa'n Irargintzaz eta lenengo denbora artan atera izan ziren liburuetaz.

Iruña'n lendabiziko agertzen zaigun moldiztegia, **Gilen Brocar**'ena da, eta lenengo liburua, «Manuale Ecclesiae Pampilonensis» edo «Iruña'ko Eliz-barrutiko oituren esku-liburua», 1486'gn. urtean aterata.

Brocar, aleman edo frantsa -iñork ez daki-, Gutenberg'en ikaslea zen; Naparroa'ra etorri ta Maria Zozaia'kin ezkondu, iru seme-alaba izan zituen, Lizarra'ko Miguel de Eguia bere suiña zelarik. Brocar, Nebrixa'k zionez «irartzalle trebe ta obereña», deitu zuen Cisneros Kardenalak Alcalá Unibertsidadera «Polyglota» edo «izkuntz askotako Biblia» argitaratzeko.

Atsegin izanen zaizue esanen dizuena. Irarkolak ez zituen euskarazko liburuak baztertu. Naparroa'n Liburu-argitaratzen asi ziren bezain laster, asi ziren euskal liburuak eta euskaldunenak argitaratzen. Adibidez, «Regulae» edo «Atsotitzak egiteko araudia», benafatar Masparraute'ko **Istebe**'k egindako, eta Brocar moldiztegian 1492'gn. urtean ateratako liburua.

Euskal liburu bat agertu zen 1561'gnean. Lizarra'n, **Anvers**'ko **Adrian**'en irarkoian: «Doctrina Christiana» edo «Kristau Doctrina», **Elso**'rena.

Au bukatzeko esan dezagun aipatu dugun Erakusketan nafatar **Axular**'en **GVERO** famatuari leku ederra eman ziotela. Orreaga'ko **Kalonje Jaun** agurgarriek utzi dute Erakusketa ontan erakusteko.

GARDE'TAR M.

## LEITZA'KO «JEIKI» KORALA ITALIA'N

Arezzo'n ateratako argazki ontan ikusten duzue, Italia'ko iri artan abestu zuten

Leitza'ko «Jeiki» Abesbatzak, joan den Agorrilla'ren azken egunetan. Leitza'ko, XXIX'gn. Nazioarteko Leiketean aritu ziren 27 emakume ta 23 gizonekin, **Pontxo Irurtia** Zuzendari zela.

«Ama begira zazu» ta «Arrats gorri» abestu zituzten **Folklore Saillan**; **Polifoniari** buruz, «Cor meum», «Vinea mea electa» eta «S'andasse amor». Ain atsegiña izan zelarik leitza'ko jarduna, **Rumania**'ko «**Ploieste**» Koralak eskeiñi zion beren errira joan zitezen abestera, berak, txandan, **Leitza**'ra etorzekotan.

Larunbatez, **Laterma** irian eman zuten kontzertu bat. **Gauaz**, **Arezzo**'ra itzuli eta eratzaillei baimena eskatu zieten, gerturik zeramaten txaranga batekin kalez-kale ibiltzeko. Eginkizun ontan elkartu zitzaizuten aleman abesbatz batekoak, eta aufika alaitu zuten **Arezzo** iria.

Azkenean, **Erroma**'ra joan ziren eta bi egun igaro, bertako edertasunak ikusten. Ongi merezia zuten **Leitza**'ko abeslari iaioek. **Zorionak** eta berriro lanera **Pontxito**'ren zuzendaritzapean.

UXOLA

